ZIZURKILGO UDALA

**EZ OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA**

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2015eko abuztuaren 3, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

**EGUNEKO AZTERGAIAK**

**1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2015.06.22 ETA 2015.06.29).**

**2.- "ZIZURKILGO LIBURUTEGI AMANKOMUNA GAUZATZEKO PROIEKTUA"REN OBRAK ESLEITZEA.**

**3.- 2014ko AURREKONTUEN KONTU OROKORRA ONARTZEA.**

**4.- MADRILGO ADMINISTRAZIO AUZIEN AUZITEGI GORENAK 1861/2013 KASAZIO-ERREKURTSOAN EMANDAKO 2015EKO MAIATZAREN 5EKO EPAIAREN BERRI EMATEA ETA BERA EXEKUTATZEA.**

**5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2015/104tik 2015/135ra).**

**6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

Zizurkilen, 2015eko uztailaren 29an

Alkatea.

**CONVOCATORIA A PLENO EXTRAORDINARIO**

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **3 de Agosto de 2.015, lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

**ORDEN DEL DÍA**

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (22.06.2015 Y 29.06.2015).**

**2.- ADJUDICACION DE LAS OBRAS DEL "PROYECTO DE EJECUCION DE LA BIBLIOTECA MANCOMUNADA DE ZIZURKIL".**

**3.- APROBACION DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DE 2.014**

**4.- DACION DE CUENTA Y EJECUCION DE LA SENTENCIA DE 5 DE MAYO DE 2.015, RECAIDA EN EL RECURSO DE CASACION NUMERO 1861/2013 DEL TRIBUNAL SUPREMO DE LO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO DE MADRID.**

**5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (104/2015 al 135/2015).**

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkil, 29 de Julio de 2.015

El Alcalde.

ZIZURKILGO UDALA ALKATEGOA

Teodoro Hernandorena kalea, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 30 66 – Fax: 943 69 36 74 – e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

**2015eko ABUZTUAREN 3an EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL DIA 3 DE AGOSTO DE 2.015**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA/ALCALDE:**
José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**
Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)
Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)
Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)
Arkaitz Zaldua Jauregi (EH Bildu)
María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)
Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.)
José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)
Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**
José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabosteko abuztuaren hiruko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) eta Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día tres de Agosto de dos mil quince, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) y Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu).

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2015.06.22 ETA 2015.06.29).**

Udalbatzak, ahobatez, erabaki du 2015eko ekainaren 22an eta 29an egindako Bilkuren Aktak onartzea.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (22.06.2015 Y 29.06.2015).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar los Actas de los Plenos celebrados los días 22 y 29 de Junio de 2.015

**2.- "ZIZURKILGO LIBURUTEGI AMANKOMUNA GAUZATZEKO PROIEKTUA"REN OBRAK ESLEITZEA.**

Aipatutako obra esleitzeko prozesua kontuan hartuta (prozesuaren izapide guztiak dagokion espedientean jasota daude).

Obra Urbycolan SL enpresari esleitzeko kontratazio-mahaiak aurkeztutako proposamena ikusirik.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (5 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, erabaki du:

Lehena.- "Zizurkilgo Liburutegi Mankomunatua gauzatzeko proiektua"ren obrak egiteko kontratua Urbycolan S.L. enpresari behin betiko esleitzea. Prezioa 356.786,79 eurokoa izango da, gehi dagokion BEZa, kasu honetan 74.925,23 euro. Beraz, esleipenaren zenbateko osoa 431.712,02 eurokoa izango da.

Obrak egiteko epea hiru hilabetekoa izango da eta enpresak obraren proiektua hobetzeko bere eskaintzan aurkeztutako aldaketa guztiak bete beharko ditu.

Bigarrena.- Urbycolan S.L.ri eskatzen zaio udaletxera etortzea kontratuaren formalizazioa sinatzera, esleipena jakinarazi eta zazpi laneguneko epean.

**2.- ADJUDICACION DE LAS OBRAS DEL "PROYECTO DE EJECUCION DE LA BIBLIOTECA MANCOMUNADA DE ZIZURKIL".**

Visto el proceso realizado para la adjudicación de la mencionada obra, cuyos trámites constan en el expediente correspondiente.

Vista la propuesta presentada por la Mesa de Contratación que propone la adjudicación de la obra a la empresa Urbycolan S.L.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (5 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que, por unanimidad, la Corporación acuerda:

Primero.- Adjudicar definitivamente el contrato de las obras del "Proyecto de ejecución de la Biblioteca Mancomunada de Zizurkil" a la empresa Urbycolan S.L., por el precio de 356.786,79 euros, más el IVA correspondiente, que es de 74.925,23 euros, sumando un total de 431.712,02 euros.

El plazo para la realización de las obras será de tres meses, debiendo la empresa cumplir todas y cada una de las mejoras al proyecto de obra reflejadas en su oferta.

Segundo.- Requerir a Urbycolan S.L. para que en el plazo de siete días hábiles, a contar desde el siguiente a la fecha de la notificación de la adjudicación, se presente en este Ayuntamiento para formalizar el contrato.

**3.- 2014ko AURREKONTUEN KONTU OROKORRA ONARTZEA.**

**3.- APROBACION DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DE 2.014**

Teodoro Hernandorena kalea, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 30 66 – Fax: 943 69 36 74 – e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

Espedientea ikusirik eta jakinda 2015eko ekainaren 8an Udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak 2014 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari aldeko txostena eman ziola.

Visto el expediente y resultando que el día 8 de Junio de 2.015 la Comisión Especial de Cuentas de este Ayuntamiento emitió informe favorable sobre la Cuenta General del Presupuesto de 2.014

Aipatutako Kontua jendeaurrean jarria izan zen 15 eguneko epean eta alegazio edo erreklamazio bat ere ez zen aurkeztu.

Expuestas dicha Cuenta al público por plazo de 15 días, resulta que no se han presentado alegaciones ni reclamaciones.

Kontuan hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63 artikuluari jarraiki, Udalbatzari dagokiola Kontu Orokorrak onartzea.

Considerando que es competencia del Pleno la aprobación definitiva de la Cuenta General, a tenor de lo establecido en el artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Ondoren aurkeztutako Kontu Orokorra onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 8 (5 EH Bildurenak eta 3 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 S.V.-E.S.rena).

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Cuenta General, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 8 (5 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 de S.V.-E.S.)

Beraz, Udalbatzak, botoen gehiengoarekin, 2014 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorra behin betirako onartzea erabaki du.

Por lo que, la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar definitivamente la Cuenta General del Presupuesto del ejercicio de 2.014

**4.- MADRILGO ADMINISTRAZIO AUZIEN AUZITEGI GORENAK 1861/2013 KASAZIO-ERREKURTSOAN EMANDAKO 2015EKO MAIATZAREN 5EKO EPAIAREN BERRI EMATEA ETA BERA EXEKUTATZEA.**

**4.- DACION DE CUENTA Y EJECUCION DE LA SENTENCIA DE 5 DE MAYO DE 2.015, RECAIDA EN EL RECURSO DE CASACION NUMERO 1861/2013 DEL TRIBUNAL SUPREMO DE LO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO DE MADRID.**

Epai hori Gabriel Albizu Urreta jaunak eta Esperanza Tapia Urquia andreak Zizurkilgo HAPO-a behin betiko onartu zuen 2011ko apirilaren 12ko Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren aurka jarritako Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoari dagokio.

Corresponde al Recurso Contencioso Administrativo interpuesto por Don Gabriel Albizu Urreta y Doña Esperanza Tapia Urquia, contra el acuerdo del Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa de 12 de abril de 2.011, por el que se aprobó definitivamente el PGOU de Zizurkil.

Zizurkilgo HAPOaren behin betiko onarpen akordioaren aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri zuten Gabriel Albizu Urreta jaunak eta Esperanza Tapia Urquia andreak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiko Aretoaren aurrean eta 2013ko apirilaren 18ko epai bidez aipatu Aretoak gaitzetsi egin zuen.

Don Gabriel Albizu Urreta y Doña Esperanza Tapia Urquia interpusieron recurso contencioso administrativo ante la Sala del Tribunal de Justicia del País Vasco contra el acuerdo de aprobación definitiva del PGOU de Zizurkil y mediante sentencia de 18 de abril de 2.013, la citada Sala acordó su desestimación.

Epai horren aurka Kasazio Errekurtsoa jarrita Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoak epai berri bat eman du. Epai horrek Kasazio Errekurtsoa partzialki onartu du eta Plan Orokorraren deuseztasun deklarazioa egiten du bakarrik Villa Itxaropenaren bizitegi-erabilera ordenazioz kanpo uzteari eta bera kokatuta dagoen partzelarekin batera ekipamendu publikorako lagatzeari dagokionez.

Interpuesto Recurso de Casación contra la indicada Sentencia, la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Supremo ha dictado nueva Sentencia declarando haber lugar al Recurso de Casacion estimandolo en parte y declarando la nulidad del Plan General exclusivamente en lo referido a la declaración de fuera de ordenación del uso residencial de Villa Itxaropena y su cesión, junto con la parcela en la que se ubica, para equipamiento público.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko auzietarako Aretoak epai irmoaren kopia bidali du Udalak bete dezan (2015eko ekainaren 18an eman zaio sarrera erregistroa Udalean)

La Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha remitido testimonio de la Sentencia firme para su ejecución por el Ayuntamiento (entrada en el registro municipal con fecha 18 de Junio de 2.015).

Administrazioarekiko auzietarako Legearen 104. artikuluak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikuluko c atalak diotena kontuan hartuta Udalbatza da akordio hau hartzeko eskumena duen organoa.

Considerando lo dispuesto en el artículo 104 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa y en virtud de lo establecido en el apartado c del artículo 22.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, es el Pleno el órgano competente para adoptar el presente acuerdo.

Aztertu da Hirigintza Batzordeak emandako irizpena 2015eko abuztuaren 3an.

Visto el dictamen de la Comisión de Urbanismo de fecha 3 de Agosto de 2.015

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (5 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (5 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, erabaki du:

Por lo que, por unanimidad, la Corporación acuerda:

Auzitegi Goreneko Epaitegiaren Administrazioarekiko auzietarako Aretoak 1861/2013 Kasazio-errekurtsoan emandako epaian ebatzitakoa bete eta agindutakoa egikaritzea eta horretarako:

Dar cumplimiento y ejecutar el fallo de la Sentencia dictada por la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Supremo en el Recurso de Casación nº1861/2013, y en tal sentido,

Lehenengoa.- HAPOaren A.I.U. 1 "UGARE" hirigintza araudi partikularra aldatzea goiburuan aipatu ebazpen judiziala betez "Villa Itxaropena" eraikinaren eta bere partzelaren determinazio berriak ezartzeko.

Primero.- Proceder a modificar la normativa urbanística particular del A.I.U. 1"UGARE" del PGOU en orden a establecer nuevas determinaciones urbanísticas para el edificio "Villa Itxaropena" y su parcela en cumplimiento de la Resolución judicial citada en el encabezamiento.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea Gabriel Albizu Urreta jaunari eta Esperanza Tapia Urquia andreari.

Segundo.- Comunicar la presente Resolución a Don Gabriel Albizu Urreta y Doña Esperantza Tapia Urquia.

Hirugarrena.- Ebazpen honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko auzietarako Aretoari.

Tercero.- Comunicar la presente Resolución a la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

**5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2015/104tik 2015/135ra).**

**5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (104/2015 al 135/2015).**

2015eko ekainaren 19tik uztailaren 22ra Alkateak sinatutako 2015/104tik 2015/135ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 104/2015 al 135/2015 firmados por la Alcaldía entre el 19 de Junio y el 22 de Julio de 2.015 cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

La Corporación se da por enterada.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hamabost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y quince minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

**O.I. ALKATEA.**

**Vº Bº EL ALCALDE.**

ZIZURKILGO UDALA ALKATEGOA